



Liburutegi Amaigabea

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Dokumentu hau «Liburutegi amaigabea» txostenaren laburpen exekutiboa da Dosdoce.com-ek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarentzako egina.

Helburua ikuspegia, eduki eta zerbitzuen egiturak aztertzea izan da, baita munduko liburutegi nagusien kudeaketa-ereduak aztertzea ere, eLiburutegia plataforma aberasteko modua zehazteko.

«Liburutegi amaigabea» txostena egiten honako pertsona hauek parte hartu dute: Javier Celaya, Gabriel Portell, Joaquín Rodríguez, Elisa Yuste, José Antonio Vázquez, Esteban Trigos eta Maribel Riaza

Argitaraldia: 1.a, 2015eko urria

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Azaleko argazkia: Nicolás Grosspierre. Alarcón arte-galeriak utzitako argazkia.

Diseinua eta maketazioa: EkipoPO

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea

| | | | |
|---|-----------|---|-----------|
| Sarrera | 4 | 3. Eduki eta zerbitzu berriak: liburu elektronikoen harago | 28 |
| 1. Proiektuaren ikuspegi estrategikoa: teknologia propioa eduki ala ez eduki | 10 | 3.1 Autoedizioa, jokoak, eduki hezigarriak eta gizarte-etiketatzea | 30 |
| 1.1. Mailegu digitalean espezializatutako merkataritza-plataformak | 11 | 3.2 Zerbitzu berriak | 34 |
| 1.2. Mailegu digitalerako plataformen jabetza-ga- rapena | 12 | 4. Azterketa: eLiburutegia, Eusko Jaurlaritza- ren apustua kultura-eredu propioaren alde | 37 |
| 1.2.1 Grenoble: Bibook plataforma | 15 | 5. Ondorioak | 43 |
| 1.2.2 Flandria: E-boeken in de Bib | 16 | | |
| 1.2.3 New York: Library Simplified | 17 | | |
| 2. Lizenzia-ereduak: gure beharretara ego- kitzen diren ereduak hartzea | 22 | | |
| 2.1. Lizenzia-eredu zabalduek | 22 | | |
| 2.2. Nagusitzen ari diren beste lizenzia-eredu batzuk | 24 | | |
| 2.3. Eredu bateratuak eta elkarlanekoak | 26 | | |

Sarrera

Txosten honek munduko liburutegietako mailegu digitaleko plataforma nagusiak aztertzen ditu, baita erabiltzen diren lizentzia-motak eta eduki eta zerbitzu motei dago-kienez nagusi diren joerak ere.

Arrakasta izateko gakoak eta alderdiak identifikatu dira, liburutegiko arduradunei mailegu digitaleko proiektu bat abiarazterakoan kontuan hartu beharko dituzten alderdiak zehazten laguntzeko. Gainera, liburutegietako espazio fisikoei ematen zaizkien erabile-
ra berriei buruzko adibideak eta joera garrantzitsuenak azaltzen dira, teknologia gure eguneroko bizimoduan barneratu dugun garai honetan.

Mailegu digitaleko plataformen arrakastarako azterketan identifikatu diren gako nagusiak honako hauek dira:

- 1) Liburu elektronikoen katalogo zabala.** Liburu elektronikoen katalogo zabala edukitzea da liburutegi-mailegua sustatzeko gako nagusietako bat. Mailegu digitaleko zerbitzuaren erabilera-ratio onenak dituzten plataformak katalogoetan batez beste 10.000 e-book baino gehiago dituztenak dira.

- 2) **Liburuzaintzako prestakuntza.** Katalogo zabalaz gain, benetan garrantzia bizia du liburuzainek prozesu osoan parte hartzeak, mailegu digitaleko proiektua arrakastatsua lortzeko: aktiboki entzun behar zaie, eta haien iradokizunak eta hobetzeko proposamenak jaso. Hasieratik, edukiak aukeratzeaz gain, liburuzainak prestatu behar dira, plataformaren funtzionamendua sakon ezagutu dezaten, eta hala, erabiltzaileei aktiboki gomendatu ahal izateko.
- 3) **Iraungipenik gabeko mailegu-lizentziak erostea.** Ez dago lizentzia-eredu bakarra, aukera-sorta zabala baizik. Aukerok argitaletxe eta liburuzainek aztertu beharko dituzte, lizentzia bakoitzaren egokitasuna zehazteko erositako liburu elektronikoen erabileraren arabera.
- 4) **Pantailako irakurketa sustatzea.** Katalogo ona eta proiektuarekin motibatutako liburuzainez gain, liburutegiek pantailako irakurketa sustatzeko ahalegina egin behar dute, irakurketa digitaleko klubaren bidez, online irakurketa sustatzeko kanpainak eginez blog eta gizarte-sareen bidez, eta ikastetxe, egile eta argitaletxeekin kanpainak koordinatuz erositako katalogoaren txandaketa dinamizatzeke.

- 5) **Teknologiaren kontrol handiagoa.** Lehenengo fasean merkataritza-plataformen mailegu-zerbitzuak kontratatzen baziren ere, gero eta liburutegi gehiago jabe-plataformen abiaraztea aztertzen ari dira, erabiltzaileei zerbitzu publikoak eskaintzerakoan kontrol eta malgutasun handiagoa eskaintzeko.
- 6) **Liburu elektronikoez harago.** Liburutegiek edukien bilaketan lehenak izan behar dute, eta erabiltzaileei mota guztietako eduki digitalak eskaini behar dizkiete. Gai horrekin loturik, liburutegi publiko berritzaileenak mota guztietako edukiak sartzen ari dira katalogoetan: aplikazio hezigarriak, liburu autoeditatuen aukera zabala, erabiltzaileek sortutako edukiak, egile-eskubiderik gabeko lanak, bideo-jokoak, filmak, musika etab., baita argitalpen-sektoreko liburu elektronikoak ere.
- 7) **Irakurketa propioko aplikazioa.** Formatu digitaleko edukiak ezagutzeko eta kontsumitzeko bestelako modu bat da. Haren bidez, hainbat arlo aztertzeko aukera dago: irakurleen irakurketa-ereduak, azpimarratutako lerroak, benetak irakurketa-denborak, partekatutako zatiak, gizarte-sareetako elkarrizketak, eta abar, erabiltzailea sakon ezagutzeko eta zerbitzua hobetzeko aukera eman.

8) Espazio fisikoen eraldaketa. Teknologia gero eta indar handiagoa dauka, eta ukimenezko pantailek, *beacon*-ek, errealitate areagotuak... edukiak aurkitzea, bilatzea eta eskuratzeko errazten eta aberasten dute. Topaketetarako, ikasteko eta irakurtzeko sortutako tokia aldatzen ari da, abiapuntua ahaztu gabe eta lehen pentsatu gabeko zerbitzuak barneratzen ditu: ekintzailak, arte-sorkuntza, lanbide-heziketa eta enplegarritasuna.

9) Elkarlana eta baterako sorkuntza. Mota horretako zerbitzuak modu kolektiboan garatu eta mantendu behar dira, beste toki batzuetako liburutegiekin batera, baita beste herrialde edo gobernu batzuekin eta eredu berritzaileak (kode librea, marka zuriko lizentziak, «revenue-share», eta abar) dauzkaten partner teknologikoekin batera ere.

Bestalde, liburutegietarako honako erronka hauek identifikatu dira nazioarteko ikerketa honen garapen-esparruan:

- Edukia eskuratzeko murrizketak: eduki osoa edo zati bat eskuratzeko aukera, epe zehatz baterako edo epe zehaztugaberako...

- Edukiari aplikatutako babes-sistemak baimendu gabeko banaketa saihesteko (DRM), deskargatutako edukiaren babesik eza edo hodei-irakurketaren (*streaming*) aurrean.
- Edukietarako lizentzia-eredu desberdinak: behin betiko erosketa, erabileraren arabera lizentzia erostea, sarbidea edo harpidetza, iraungipena duten edo iraungipenik ez duten lizentziak, irakurketa eraginkorraren arabera ordainketa edo hainbat aukeraren arteko nahasketa.
- Irakurketa-euskarrien mailegua eta jabe-formatuen edo formatu unibertsalaren arteko borroka.
- Euskarrien Internetarako sarbidea; horrek deskargatutako edukiaren kontrol etengabea ekarriko du.
- Mailegu-zerbitzua kudeatzeko denbora- eta ekipo-inbertsioa.
- Liburutegietako zerbitzu eta edukien eraldaketa.

Egoera berria bizi dugu: liburutegiek ezagutzaren eta berrikuntzaren geografia berri bat osatuko dute. Epizentroa mugitu egiten da erabiltzailearengana eta bere eskura

jarri behar diren zerbitzu eta tresnetara, edukiak kontsumitzeaz gain sortu eta partekatu ere parteka ditzan. Eta eraldatu egingo dira liburuzainen funtzioak, eginkizunak eta dituzten eskumenen nondik norakoak.

1. Proiektuaren ikuspegi estrategikoa: teknologia propioa eduki ala ez eduki

Mailegu digitaleko zerbitzuen kudeaketa-eredu bi daude: batetik, mailegu digitaleko mota guztietako zerbitzuak ematen espezializatutako **merkataritza-plataformen** bidez egindakoa, edo bestetik, **jabe-plataforma** autogestionatuen bidez egindakoa. Azken horien berezitasuna da liburutegiei autonomia handiagoa ematea, eskaini nahi dituzten eduki motei (liburu elektronikoak, audioliburuak, bideo-jokoak, musika, etab.) buruzko erabakia bultzatzen baitute, baita eskaini nahi dituzten funtzionaltasunei buruzko erabakiak eta une bakoitzean txertatu nahi dituzten hobekuntzei buruzko erabakiak ere. Baina, nolahi ere, teknologia propioa edukitzea edo ez edukitzea erabaki baino lehen, proiektuaren epe luzerako ikuspegia zehaztuko duen estrategia prestatu beharko da.

1.1. Mailegu digitalean espezializatutako merkataritza-plataformak

Liburutegiei zerbitzuak eskaintzen dizkieten merkataritza-plataforma ugari daude. Funtsean, eskuratzen dena edukien mailegurako teknologia erabiltzeko eskubidea da. Edukia hornitzaileak aurrez zehaztutakoa izango da, eta denboraldi zehatz baterako mailegatuko diete. Normalean, plataforma liburutegiaren webgunera egokitzen da, diseinuari, logoari, eta abarri dagokionez.

Gainera, zerbitzuak izenburuen katalogoa barne hartzen du, eta horietatik liburutegiak erabiltzaileei eskaini nahi dizkionak aukeratuko ditu, baita honako zerbitzu hauek ere: nobedadeak, liburu mailegatuenak edo gomendatutako irakurketak erakusteko parametrizatu daitezkeen eduki aldakorren galeriak, erabiltzaileek materialak hautatzeko katalogoa ikustea ahalbidetzen duten liburutegietako ukimenezko terminalak etab.

Gure inguruan azpimarragarriak dira merkataritza-plataformen gainean eraikitako liburutegi digitalak, esaterako: Galiziako Liburutegien Sareak Xebook mailegu-plataformaren bidez burututakoa; Odilo enpresak kudeatutako Cervantes Institutuaren Li-

burutegien Sarea; edo eBiblio, liburutegi-mailegu digitala kudeatzeko plataforma, egun Odilo enpresak kudeatzen du eta Estatuko liburutegi publikoen sare osoarentzako eskuragarri dago, Euskal Autonomia Erkidegorako izan ezik, teknologia propioa garatu baitu, jarraian ikusiko dugun bezala.

Nazioartean, Overdrive, 3M Cloud Library eta Axis 360, nabarmentzen dira, besteak beste. Eredu horretan, badaude hezkuntza-sektorean eta sektore akademikoan espezializatutako plataformen adibideak ere, adibidez eLibro, liburutegi akademikoei, institutuetako liburutegiei, liburutegi publikoei, korporatiboei eta gobernu-liburutegiei edukiak eskaintzen dizkiena, edo EBL (Ebook Library), munduko gobernu-liburutegi eta liburutegi korporatibo akademikoentzako eta ikerketa arlokoentzako mailegu-zerbitzua.

1.2. Mailegu digitalerako plataformen jabetza-garapena

Internet mundu aldakorra denez, teknologiaren zuzeneko kudeaketa da gakoetako bat, hirugarrenen mende ez dagoen kultura-kudeaketako eredua zehaztu ahal izateko; hartara, bat ez datozen ikuspegiak barne hartu ahal izateko, eta erkidego edo herrialdeen

arteko hitzarmenetara iritsi ahal izateko, horien bidez teknologia marka zuritzat utzi edota denen artean garapen konplexuei aurre egiteko.

Teknologia propioa edukitzeak konpromiso handiagoa eskatzen duen arren, XXI. mendeko liburutegirantz aurrera egiteko modua ematen du, hau da: liburutegiak, bokazio publikoarekin egungo zerbitzuak eskaintzen diren lekuez gain, mota guztietako eduki digitalen baterako sorkuntzarako topagune bihurtuko dira. Eraldaketa-testuinguru honetan, teknologia propioa edukitzeak aukera ematen du aro digitalean liburutegiek zeregin garrantzitsua izaten jarraitzeko.

Mailegu-ereduen eskaintza orokorra oso mugatua da, eta, hein handi batean, inposatzailea, sarritan ez baita liburutegiek dituzten benetako beharretara egokitzen. Horregatik, liburutegi batzuek aurrea hartu eta beren teknologia propioa garatu dituzte eta funtsak eskuratzeko hainbat bide ezarri: banatzaile handiekin akordioak egitea, zein funts propioak barne hartzea. Ekimen mota horiek interes handia piztu dute liburutegi-komunitatean.

Liburutegi digital autogestionatuaren ereduak esku hartzeko aukera gehiago ematen du, bai erabiltzailearen esperientzian, bai eskaintzen diren edukietan eta funtzionalta-

sunetan. Liburuzainek argitaletxeek eskaintzen dizkieten edukien aukeraketan parte har dezakete zuzenean, baita beste eduki osagarri batzuk sartu ere (aplikazioak, musika, bideo-jokoak etab.). Plataforma propioa edukitzeak aukera ematen du nork bere edukiak eskaintzeko, baita erabiltzaileen edukiak edo beren lana autoeditatzea erabaki duten egile ezezagunen edukiak eskaintzeko ere.

Arrakasta izateko oinarrizko alderdietako bat liburuzainek mailegatzeko moduan egongo diren lanen aukeraketan parte hartzea da, erabiltzaileen benetako eskaeran jartzen baitu arreta, ez nobedadeetan edo sustapenetan bakarrik. Izenburu-sorten erosketan oinarritutako katalogoa alde batera utzi eta izenburukako erosketan oinarritutako katalogoa erabiltzea esan nahi du –neketsuagoa da baina irakurlearengandik hurbilago dago—.

Jabe-plataforman garatutako liburutegi digitalen adibide gisa, European hiru kasu interesgarri ditugu: eLiburutegia Euskadin (txosten honen amaieran zehatzago aztertuko dugu), Grenoble Frantzia, eta azkenik Flandriakoa (Belgika). Jabe-plataformako beste proiektu berezi bat Library Simplified da, Estatu Batuetan New Yorkeko Liburutegi Publikoak garatutakoa.

1.2.1 Grenoble: Bibook plataforma

Frantzia, ekimenenik interesgarrienetako bat Grenobleko Liburutegi Sareak (BGM) sortutakoa da, Bibook plataforma, gehienik Frantziako Kultura Ministerioak finantzatutakoa.

Grenobleko liburutegiak eta beste liburutegi batzuk ondorioztatu zuten Frantziako aurreko proiektuak (Numilog) ez zuela herrialde horretako ikuspegi orokorraren argitalpen-aniztasun nahikorik barne hartzen. Beraz, beren liburutegi-mailegurako plataforma garatu nahi izan zuten, hainbat argitaletxeren edukia sartu ahal izateko, erabiltzaileak etengabe liburutegiko ekosistema digitaletik kanpora, hots, merkataritza-agregatzaileen webguneetara, bideratu beharrean.

Bibook erabiltzailearen interfazea liburu digitalen edukien hainbat iturri barne hartzeko diseinatuta dago (adibidez, PNB, Numilog eta atzerriko hizkuntzetako izenburuak) liburutegi digitaleko ekosistemaren barnean.

Era berean, Grenobleko Liburutegi Sarea (BGM) DRM baino babes-sistema atseginagoa aplikatzeko aukera ikertzen ari da: Radium Fundazioa garatzen ari den DRMren plugin-a.

1.2.2 Flandria: E-boeken in de Bib

Beste kasu azpimarragarri bat Flandriakoa da (Belgika), eta «E-boeken in de Bib» plataforma (liburu elektronikoak liburutegian). Plataforma garatzeko prototipoa planifikatzeko eta sortzeko prozesuak Flandriako Gobernuaren laguntza izan zuen 2010 eta 2013 bitartean. Plataforma Bibnet erakundeak zuzentzen du, 2009an Flandriako Gobernuak Flandriako liburutegi publiko guztietan azpiegitura eta zerbitzuak garatzeko sortutako erakundeak.

Fase pilotua, Bibnet erakundeak kuota ekonomikoa finkatu zue, bezeroei lau asterako hiru izenburu mailegatu ahal izateko txartela emateko. Ikusmen-desgaituentzako zerbitzu bereziak ere badaude.

Egun, mailegu-zerbitzua plataforman parte hartzen duten tokiko liburutegi publikoetako ki-deek bakarrik erabil dezakete, eta 30.000 erabiltzailerentzako erreserba eskaintzen du. Gaur egun, Flandriako 200 liburutegi publiko inguruk eman dute izena plataforman (guztira 300 liburutegi publiko daude), hau da, Flandriako biztanleen % 80 ingururi ematen die zerbitzua.

Plataformaren web-orritik edo iOS eta Android gailuetatik erabiltzeko optimizatutako aplikazioaren bidez eskuratu daitezke zuzenean liburu elektronikoak. Liburu elektroni-

koek ez daukate DRM «oldarkorra», ur-markak baizik (edo DRM soziala). Irakurketa-aplikazioa instalatu beharrik gabe, erregistratu beharrik gabe edo sarbide-txartelik gabe kontsultatu daitezke plataforman eskuratu daitezkeen izenburu guztiak (eta edukiaren % 10 aurre-bistaratu daiteke). Webgune berberetik liburu digitalen izenburu guztiak ere eskuratu daitezke, mugarik gabe (eta doan) atxikitako liburutegietako instalazioen barnean dagoen Interneteko nabigatzailearen bidez.

Azken buruan, Bibnet erakundeak plataforma propioa hartzea eta garatzea erabaki zuen, funtsean, erabiltzailearen esperientziaren kalitatea kontrolatzeko aukera handiagoa emango zielako eta mailegu digitaleko zerbitzuetako etorkizuneko osagaiak berri-itu eta hobetzeko gaitasuna emango ziolako.

1.2.3 New York: Library Simplified

[Library Simplified](#) Museo eta Liburutegietako Zerbitzuen Institutuari eta New Yorkeko Liburutegi Publikoari (NYPL) esker hasi zen proiektu berezi hau. Beste liburutegia asko batu dira proiektura, sarbide irekiko zerbitzuaren bokazioarekin eta pentsamoldearekin, hala nola Brooklyneko liburutegi publikoa, Bostoneko liburutegi publikoa, Sacramen-

toko liburutegi publikoa, Santa Clarako liburutegi publikoa edo Cincinnatiko liburutegi publikoa. Horietariko asko, gainera, liburutegi akademikoak dira.

Liburuak mailegatzen dituzten merkataritza-plataforma nagusien menpe egon behar ez izateko ekimen gisa jaio da proiektua; izan ere, haiek beren diru-baldintzak eta deskarga-prozesuak inposatzen dizkiote liburutegi-sektoreari, kontuan hartu gabe liburutegien premiak ezta liburutegien gizarte-betebeharrak ere –irakurleen pribatutasuna errespetatzea, kasu-. Merkataritza-plataforma horiek liburutegien erabiltzaileei datu pertsonalak emateko eskatzen dizkiete irakurri nahi dituzten liburu elektronikoak eskuratu ahal izateko.

Liburutegi-sektorearentzako «naturaren kontrakoak» diren eskakizun horien aurrean, aurrez aipatutako Estatu Batuetako liburutegiak batu egin dira ordezeko aukera sortzeko, plataforma horien zentzu gabeko merkataritza-eskakizunak jasan beharrik gabe erabiltzaileei zerbitzua eman ahal izateko.

Testuinguru honetan, herrialde horretako sei liburutegi handi horiek –eta gero-
ra batu direnak– Library Simplified plataforma atera dute, liburu digitalen mailegu-prozesua errazagoa bihurtzeko asmoz; hau da, liburutegi publikoetan liburu ele-

ktronikoen maileguen aukeraketa-, aurkikuntza- eta eskaera-prozesuak zuzenean eta modu adeitsuagoan kudeatu ahal izateko. Adibidez, NYPL erabiltzen dutenek hemeretzi pauso inguru behar dituzte liburu elektroniko bat irakurtzeko. Ekimen honen asmoa klik kopurua hirura murriztea da: klik bat liburu elektronikoa topatu edo aurkitzeko; beste klik bat begirada bat emateko edo deskargatzeko; eta hiru-garren klik bat irakurtzeko.

Ebook bat deskargatzeko hainbeste pauso (klik) behar izateko arrazoia da aipatutako merkataritza-plataforma bakoitzak elkarren artean komunikatzen ez diren ekosistema itxietan jarduten dutela arrazoi komertzial hutsengatik. Liburu elektronikoen katalogo bakar bat eduki beharrean, liburutegiek kontratatu dituzten hiru edo lau merkataritza-plataformen artean bananduta dute katalogoa. Erabiltzailea katalogo bakoitzean sartu behar da eskaintzen dituen liburu elektronikoa ikusteko. Irakurri nahi duen liburua aurkitu duenean, plataforma horretan alta egin behar du eta mailegua eskatu.

Proiektu honen beste alderdi interesgarri bat da erabiltzailearentzat duen gardentasuna: liburutegira sartzen ari da soilik, eta ez daki liburua zer plataformatan dagoen.

Library Simplified izan da lehenengoa liburu elektronikoentzako DRM sistema berria hartzen, sistema malguagoa, adibidez eleberri edo saiakera labur batek ohikoa baino mailegu-aldi laburragoa izan dezake.

Illo horretan, ReadersFirst.org mugimenduaren erabilgarritasun-, irisgarritasun- eta pribatutasun-printzipioak dira Library Simplified proiektuaren oinarritzko erreferentziak. Ekimen honek ikusten du liburu digitaletarako sarbide libreagoa, errazagoa eta doakoa eduki behar dutela erabiltzaileek, inprimatutako liburuetarako duten bezala. Katalogo bakar bat sustatu nahi da, hornitzaile bakoitzaren edukiak eta bere interesak alde batera utziz, erabiltzaileek nahi duten guztia aurkitzea eragozten baitute.

Era berean, liburutegiak edukiak eta egokitzen jotzen dituzten gailu eta aplikazioak kudeatu, aukeratu, eta hautatzea eskatzen dute. Liburutegiak eman behar du zerbitzua eta erabiltzailearentzako informazioa kudeatu behar du. Eta aspalditik aho batez eskatzen ari dira liburu elektronikoko guztiak euskarri guztiekin bateragarriak izatea, euskarria zein nahi dela ere Kindle, Nook, Sony, Kobo, iPad eta abar.

Library Simplified proiektuaren sustatzaileak plataforma honen ikuspegia eta baliabideak (kodea, irakurketa-aplikazioak, DRM, erabilitako baliabideak, etab.) beren herrial-

dean antzeko zerbeit ezartzeko interesa duten munduko liburutegi publiko guztiekin partekatzeko asmoa dute.

2. Lizentzia-ereduak: gure beharretara egokitzen diren ereduak hartzea

Mailegu tradizionalen, liburuak jabetzan eskuratzen zituen liburutegiak erabiltzaileen esku jartzeko; mailegu digitalean, aldiz, eskuratzen dena erabilera-lizentzia da, hau da, edukiaren gaineko eskubide batzuk eskuratzen dira, lizentzia motaren arabera.

2.1. Lizentzia-eredu zabalduenak

Ikerketan lizentzia-mota hauek aurkitu dira gehienbat:

1. **Mailegu-kopuruan mugak dituzten lizentziak**, oro har, 20 eta 26 bitartean. Muga horretara heldu ondoren, ez da egongo eskuragarri, eta berriz eskuratu beharko da lizentzia.

2. **Iraungitzen den lizentzia:** zenbat denboran iraungo duen mailegu-aldiak; norma-lean 2 urtekoa da muga. Aldi hori gainditu ostean, liburu elektronikoak ez dira eskuragarri egongo, eta eskubideen titularrarekin erosketa negoziatu beharko da berriz ere.
3. **Iraungitzen ez diren lizentziak:** kasu honetan modalitate honen bidez eskuratutako liburu elektronikoak hitzartutako maileguen gehieneko kopurura iritsi arte egongo dira eskuragarri, eta, beraz, ez dago denbora-mugarik.
4. **Aldiberekoak ez diren erabiltzaile-lizentziak:** formatu digitalean lan bat erabiltzaileari mailegatzeagatik baina ez aldi berean. Lizentzia honek du mailegu tradizionalaren antzik handiena, eta zerbitzuan itxarote-zerrendak egon ohi dira.
5. **Aldibereko erabiltzaileen lizentzia:** formatu digitalean lan bat erabiltzaile bat baino gehiagori aldi berean mailegatzeagatik ordaintzea. Batzuetan mugak ditu, adibidez ezin izango zaie mailegatu hamar erabiltzaile baino gehiagori aldi berean.
6. **Betiko lizentzia:** liburu elektronikoa betiko edo denboraldi luzerako (5-10 urte) eskuratzeko ordaintzea. Liburu elektronikoa liburutegiko funts iraunkorra izango

da, eta mailegatzeko eskuragarri egongo da beti, egile-eskubideen jabeari edo argitaletxeari berriz ordaindu beharrik gabe.

7. Maileguarengatiko ordainketa-lizentzia: erabiltzaileak liburua mailegatuta eskatzen duenean bakarrik ordaindu beharko dio liburutegiak argitaletxeari. Liburuak mailegatzeko ikus daitezke aurrez ordaindu gabe eta liburua mailegatzeko denean bakarrik egingo da gastua.

2.2. Nagusitzen ari diren beste lizentzia-eredu batzuk

Hona hemen aurkitu diren modalitate berri horietako batzuk, adibide modura:

- **Harpidetza:** edukiak edo zerbitzuak denboraldi zehatz baterako eskuratzea (aldiak, hilabeteak, urteak). Argitaletxeen sektorean onarpen handi samarra edukitzen ari da eredu hau, baina liburutegi-eremuan mesfidantza eragiten du oraindik, dagoneko eredu hau abiarazi duten eredu batzuk badauden arren.

- **Sarbide irekia:** eduki guztietara sarrera librea aurrez harpidetu edo ordaindu beharrik gabe. Eredu hau eremu akademikoan edo zientifikoan dago ezarrita bereziki.

Lizentzia-motak ere gailuetan eduki dezaketen eskuragarritasuna baldintzatu dezake:

- **Gailu bakar bat:** liburu elektronikoa gailu bakar batean bakarrik irakurri daitekeenean (adibidez, ordenagailuan eta ez tableta batean) edo kokapenak mugatutako gailuan (liburutegiko ordenagailuan, adibidez).
- **Hainbat gailu:** liburu elektronikoa hainbat gailutan irakurri daitekeenean: smartphoneak, tabletak, smartTBak, ordenagailuak, erlojuak...
- **Aldibereko gailu bakarra:** aldi bakoitzeko ekipo batera sarbide mugatuarekin baina beste ekipo batzuen bidez ere sar daiteke (sarbide asinkronikoa).
- **Hainbat gailu aldi berean** modu sinkronikoan.

Bestalde, liburutegiak berak mugatutako lurralde-aldagaien edo parametro pertsonalizatuen arabera sarbidea mugatzen duten lizentziak ere badaude.

2.3. Eredu bateratuak eta elkarlanekoak

Adibidez, liburutegi batzuek lankidetzak hitzarmenak egin dituzte, mailegu digitalaren zerbitzua ezartzerakoan baldintza ekonomiko hobekien lortzeko.

Norvegian, Liburutegi Nazionalak akordioa sinatu zuen egile eta argitaletxeekin, 250.000 liburu baino gehiago digitalizatu eta doan banatzeko. Suedian, Stockholme-ko Liburutegi Publikoak argitaletxe eta banatzaileekin hitzarmena egin zuen lizentzia dualaren eredu bat testatzeko. Hitzarmen horren bidez, liburutegiak ordainduko du digitalizazioa, eta ordainetan izenburu horientzako doako mailegu digitalaren eskubiak izango ditu hamaika urtean zehar. Agertu zen unetik hazkunde eutsia duen beste lankidetzak-jardueretako bat *crowdfunding*-a da.

Liburutegien esparruaz kanpo, «kontsumitutakoagatik ordaindu» (*Pay per View*) kontzeptua dago. Sistema honekin kontsumitutakoagatik bakarrik ordainduko du kontsumitzaileak. Argitaletxeen sektorean –liburutegien sektorean ere bai–, eredu horrek badu baliokidea: irakurleak argitaletxe baten edo batzuen funts espezifikoko edo katalogo zehatz batera sarbidea izateko kuota bat ordaintzea. Zatik ordaintzeko modalitatea edo mikro-ordaintzaren modalitatea ere bada, erabiltzaileak kontsumitutako edukiagatik bakarrik ordaintzen duenean.

Atal hau amaitzeko, gehitu beharra dago herrialde gehienetan eredu bat baino gehiago erabiltzen direla, batzuk tokiko berezitasunekin edo aldaketa edo zerbitzu gehigarriekin. Teknologia aurrera egin eta liburutegiko mailegu-zerbitzua erabiltzen duen irakurle-kopurua gehitzen den neurrian, mailegu eta zerbitzuen modalitate berriak garatzen ari dira.

3. Eduki eta zerbitzu berriak: liburu elektronikoez harago

«Liburutegiari eta bere informazio- eta gizarte-inguruari buruzko prospektiba-azterketarako talde estrategikoak» 2013an egindako *Datozen urteetan gure liburutegietan gehien aldatuko diren hamar arloak* dokumentuaren arabera, liburutegi tradizionalak eskainiko dituzten zerbitzu eta edukien eraldaketa sakona gutxienez bost puntuk adierazten dute:

1. Liburutegiek komunitateak sortu, gizarte-kohezioz hornitu eta informazioa eskuratzekoan herritarren aukera-berdintasuna bermatzeko duten zeregina indartu behar dute.
2. Agora liburutegiak edo hirugarren lekuan diren liburutegiak;
3. Liburutegietako espazioak oraindik bere horretan jarraituko dute, baina malguak, erosoak eta sozialak izango dira;

4. Hezkuntza, ikasketa eta trebetasunak funtsezkoak izango dira liburutegien egin-kizunean;
5. Errealitate digitalera egokitutako zerbitzuak eskainiko dira;
6. Iturri eta bilduma hibridoak kudeatzeko estrategia berritzaileak garatuko dira.

Liburutegiak, plaka tektonikoak nola, hala dabilta noraezean, oharkabean bada ere, baina, noraez horrek behin betiko eraldatuko ditu:

- Interneten sorrerak, euskarrien eta informazioa kontsumitzen eta partekatzen dugun moduen eraldaketa ez ezik, edonork edukiak sortzeko aukera ere ekarri du.
- Ezagutza sortzeko, zabaltzeko eta erabiltzeko modu gogokoena bihurtuz baliabide digitalek izan duten eztagaren ondorioz, liburu tradizionalak ez daude derri-gor informazio-ekosistemaren erdigunean.
- Adituaren eta balizko amateurraren hierarkia tradizionalak desagertu egiten dira, eta jakinduria aditua eta jakinduria arruntaren arteko antolaketa-modu berriak sortzen dira.

- Bizitza osoan zeharreko hezkuntza errealitate bihurtzen da orain: liburutegiak izan behar du aukera hori gauzatzeko tokia.
- Adituek dagoeneko ez badute ezagutza sortzeko balizko eksklusibotasun hori, jakinduria-mota berriak sortzen dira, testuinguru espazial zabalagoetan eta konplexuagoetan garatu beharrekoak.
- Erabiltzaileek jakinduriara sarbidea izateko teknologia nagusi gisa liburuak bakarrik ez, tresna eta lanabes berriak ere erabiltzen dituzte ezagutza partekatua sortzeko.
- Prestatutako interpreteen gizarte berrirantz goaz.

3.1 Autoedizioa, jokoak, eduki hezigarriak eta gizarte-etiketatzeara

Argialetxeetako eduki digitalez gain, erabiltzaileak sortutako edukiaren hazkunde eutsia gertatzen ari da. Bowker-en iazko txostenaren arabera, autoeditatutako li-

buruak liburuen salmenten guztizkoaren % 12 izan ziren Erresuma Batuan, eta munduko online liburu-denda nagusietako batek adierazi zuen dagoeneko gehien saldu-tako liburuen % 25 zirela bere liburu autoeditatuak. Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan liburutegi batzuk liburu autoeditatuekin eta erabiltzaileek sortutako edukiekin aberasten ari dira bere plataformak. Alemanian, liburutegi publikoek Biblioboard eredia erabiltzen dute, egile potentzialek eduki berriak eskaintzeko irakurleei, liburutegi publikoaren bitartekaritzarekin bakarrik.

Gero eta liburutegi gehiagok eskaintzen dute bideojokoak, aplikazioak, filmak, telebis-tako programak eta audioa on-line mailegatzeko zerbitzua, eta merkataritza-platafor-men kontratazioaren bidez egin ohi da. Plataformek eskaintza biltzen dute eta streaming bidez eskatutako zerbitzua eskaintzen dute.

- **Jokoak:** Holandako DOK Delft bideo-jokoen munduko bildumarik handiena duen liburutegi publikoa da beharbada. Liburuzainek egindako «If you're not gaming, you're losing» barne-dokumentalak (jokoan ari ez bazara, galtzen ari zara) bideo-jokoetan interes handia zuten nerabe ugariaren arreta erakartzeko balio izan zuen, eta arreta hori liburuen mailegura ere birbideratu da, liburuen mailegua % 70 gehitu baita.

Danimarkako Aarhus liburutegiak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu jokoen inguruan. «Families at Play in the Library» programa garatzen dute, arlo osagarri gisa. Helburu orokorra familiei eta jokoei buruzko ezagutza bildu eta umeak dituzten familientzako ereduak eta kontzeptuak probatzea da, bereziki jokoei dagokien eta liburutegietako jokoaren kulturari dagokionez.

- **Eduki hezigarriak:** *Teaching library* kontzeptuak baliabide hezigarriak eman eta inguruko ikastetxeetako dinamika pedagogikoetan parte hartu nahi du.

Alemaniko liburutegi publiko askok modulu bidezko eskaintza daukate eta lankidetzan aritzen diren ikastetxe edo fakultateetako curriculumean sartzen da. Hala, Alemanian «liburutegiko curriculum» (Bibliothekscurricula) deitzen dutena sortu eta garatzen da, lanean aritzen den ikasketa-taldearen beharretara bideratuta. Hor-tik sortzen da «curriculum kiribila» (*Spiralcurriculum*) ideia Alemaniako liburutegi publikoetan oso garatua, ikastetxe publikoekin lankidetzan. Beren aginduen arabera, «liburutegi publikoak eta ikastetxeak elkarren osagarri dira, alfabetatzea eta informazio-alfabetatzea modu idealean sustatzeko».

- **Gizarte-etiketatzea:** erabiltzaileei hainbat jarduera egiteko aukera ematen dieten sistemak erabiltzen hasi dira liburutegi asko: edukiei etiketak eta/edo fitxa bibliografikoak gehitu, folkosomietan oinarrituta nabigatu, oharrak egiteko tresnak erabili, edukiak baloratzeko eta rankingak ezartzeko funtzionaltasunak eta erreferentzia-tresnak erabili.
- **Aplikazioak:** Liburutegietako bildumak eta erabiltzaileei eskaini eta mailegatzeko material eta edukiak osa ditzaketen aplikazio-mota piloa daude, honako hauek esaterako:
 - + Aplikazio hezigarriak
 - + Ipuinen edo ipuin-kontalarien aplikazioak
 - + Alfabetatzea sustatzeko eta garatzeko aplikazioak
 - + Sormena sustatzeko aplikazioak
 - + Hizkuntzak ikasteko aplikazioak

Liburutegi publiko batzuek, Kaliforniako Mountain View Public Library liburutegiak, adibidez, aplikazioen aukeraketa eskaintzen die erabiltzaileei, gaiaren araberaren sailkatu eta ebaluatzen diren direktorioen zerrenda.

3.2 Zerbitzu berriak

Munduko liburutegi modernoetako batek Aarhuseko liburutegiak –Urban Media Space izenez ezaguna– espazio berriari lotutako zerbitzuen multzo osoa garatu du. Erabiltzaileei eduki digitala bistaratu, aurkitu eta kokatzen laguntzeko teknologiak dira. Liburutegiak ikasketa-esperientzia hobetzen laguntzeko espazio-mota berri bat diseinatzeko erronka hartu du. Beste liburutegi batzuk Brooklyn Public Library liburutegiak, adibidez, enplegu-eskaintzei buruzko informazioa eskaintzen dute. Beste batzuk informazio iraunkorreko zentro bihurtu dira.

Kontua ez da liburutegiak hezkuntzarekin lotutako edukiak edo zerbitzuak gehitzea, hezkuntza liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen oinarri egituratzailea bihurtzea baizik. Liburutegiek lekuko hori hartu eta honako esku-hartze hauek egiten dituzte:

- Beren espazioetako batzuk berriz diseinatu lan-areto garbi bihurtzeko.
- Erabiltzaileen esku jarri ereduak, maketak eta prototipoak eraikitzeko behar dituzten makinak, tresnak eta lanabesak: *laser cutterrak*, 3D inprimagailuak, josteko makinak, erremintak, ordenagailuak. Inprimagailuak, bideokamerak...
- Gai espezifikoei buruzko tailer eta ikastaroetarako deialdiak egin.
- Proiektuentzako coaching edo aholkularitzako plataforma eraiki.
- Gai bereberean interesa duten liburutegien sarea eraiki baliabideak, esperientziak eta emaitzak partekatzeko.
- Lanen emaitzak partekatu edonork prototipo berberak garatu ahal izateko.

Gehien aipatutako eta nazioartean ezaguna den adibideetako bat Chattanooga Public Library da.

Gero eta ohikoagoak dira lanerako espazioak eta topaguneak. Fountaindale Public Library bezalako liburutegietan, berariaz batzarrak eta laneko eztabaidak egiteko eremuak jartzen dituzte. Skokie Library bezalako liburutegi publikoetan, berriz, ikasteko

gelak, taldeak elkartzeko gelak edo ekitaldi jendetsuagoak ospatzeko auditoriuma erreserbatu daitezke.

«Book a Librarian» (Erreserbatu liburuzain bat) programa Brooklyn Public Library liburutegian burutzen da eta erabiltzailearen prestakuntzan eta hezkuntzan zeregin aktiboa bere gain hartzen du.

Liburutegi publiko batzuetan, Fountaindale Public Library liburutegian adibidez, audio eta bideorako grabaketa-estudioak jarri dira edo Asseneko (Holanda) liburutegi publiko telebista-estudioak.

Asseneko liburutegi publikoan ukimenezko pantaila erraldoiak jarri dira hainbat helbururekin: katalogoa ikusteko eta geokopakenerako aplikazioak erabiltzeko. Ukimenezko mahaiak ere erabiltzen dira funtsa ikusteko eta bildumak osatzen dituzten irudiak ikusteko.

4. Azterketa: eLiburutegia, Eusko Jaurlaritzaren apustua kultura-eredu propioaren alde

Euskadin, Eusko Jaurlaritzak eLiburutegia plataforma atera zuen azaroaren 26an. Orain arte 340.000 euro inbertitu dituzte, eta 2015ean beste 350.000 euro inbertituko dituzte lizentziak berritzeko eta gehiago erosteko. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egungo programako zutabeetako bat da proiektua.

Atera eta hamar hilabetetara 7.500 ebook baino gehiagoko eskaintza zuen dagoeneko, 23.000 mailegu baino gehiago egin ziren, eta plataforman alta egindako 7.000 bazkide baino gehiagok erabiltzen zuten, % 1eko bihurketa-ratioa sortuz. Eraitza hori oso esanguratsua da jardunean denbora gehiago daramaten beste liburutegi batzuekin alderatzen badugu. Suediak 700.000 erabiltzaile ditu, eta % 1,5eko bihurketa-ratioa du, 2013 martxan hasi zenetik. Gure inguruko herrialdeetara jota, Italiara adibidez, Media Library plataforma 2005. urtetik da abian, eta % 1,25eko bihurketa-ratioa du. Portzentaje hori % 7,91ra igotzen da aldizkariak, filmak, musika... eta halako edukiak kontuan hartzen baditugu.

eLiburutegiaren bidez, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren 570.000 erabiltzaile baino gehiagok mailegatu ditzakete liburu digitalak; 2015ean, 700.000 erabiltzaile izango dira, liburutegi berriak sartuko baitira sarera eta urte amaieran 10.000 izenburu inguru eskainiko ditu. Izenburu-eskaintza zabala edukitzea da, zalantzarik gabe, liburutegi-mailegua sustatzeko eta irakurleei zerbitzu ona eskaintzeko gako garrantzitsuenetako bat. 2015eko uztailean Bilbo eta Donostia eLiburutegiara gehitzen dira. Hiri horietako udal liburutegietako erabiltzaile guztiek eLiburutegiak eskaintzen dituen liburuak doan deskargatu ahal dituzte. Orain arte, bi udalerrri horiek ezin izan dute zerbitzu hori eskaini. Aurrerantzean, hartutako akordioaren ondorioz, beren erabiltzaileak ere eLiburutegia zerbitzuaren onura jaso ahal izango dute. Bi hiri horiek 300.000 erabiltzaile baino gehiago dituzte: Bilbok 184.000 eta Donostiak 120.000.

Ameriketako Estatu Batuetako liburutegi publikoek 10.000 ebook dauzkate batez beste beren mailegu digitalerako katalogoetan. Estatuko gainerako liburutegi publikoek eBiblio liburutegi digitalaren zerbitzuak kontratatu dituzte. Liburutegi digital hau Kultura Ministerioak sustatu du, eta 1.500 izenburu ditu eskuragarri. Kopuruok Estatuko eta nazioarteko kopuruaren gainera kokatzen dute Eusko Jaurlaritzaren plataforma, eta irakurketa digitala sustatzeko egin duen apustu sendoa erakusten du.

eLiburutegia Euskadiko argitaletxeen gremioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordiotik sortu zen. 2014an akordio bat sinatu zuten eduki digitaleranzko eraldaketa-prozesuan euskal argitaletxeen sektorea bultzatzeko, euskarazko eduki digitaletarako sarbidea bermatzeko eta irakurketa digitaleko gailu berrietan irakurketa sustatzeko.

Zerbitzuari euskarria emateko, plataforma propioa garatu du Eusko Jaurlaritzak. Kultura-eredu propioaren aldeko apustu sendoa da hori Eusko Jaurlaritzarentzat. Internet horren mundu moldakorra izanik, gako da teknologia zuzenean kudeatzea kultura kudeatzeko eredu berezko bat zehazteko. Horri esker, une bakoitzean zein eduki eta zein zerbitzu berri eskaini erabakitzen dute, eta beste eredu batzuek, aldiz, aurrez aukeratutako sortak eta zerbitzu estandarizatuak ezartzen dituzte.

eLiburutegiako katalogoaren aukeraketan liburuzainek beraiek parte hartu dute, Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarera atxikitako 230 liburutegiak ordezkatzeko dituen komitearen bidez. Azaroan ateratzeko, aukeratutako argitaletxeetan eskuragarri zeuden gaztelaniazko eta euskarazko 27.000 liburu elektronikoak banaka-banaka aztertu ziren. Azkenik 7.000 aukeratu ziren: euskaraz argitaratutako liburuak, nobedadeak % 25 baino gehiago, haur- eta gazte-literaturako lanak % 25 baita lan klasikoak eta askotarikoak ere.

Zerbitzuak Adobeko DRMk babestutako liburu elektronikoak barne hartzen ditu, eta sarrera libreko lizentziak ere bai. Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko argitaletxeen artean sinatutako akordioak (Estatuko gainerako argitaletxeetara zabal daiteke) jendearentzako salmenta-prezioan beherapena duten lizentziak eskuratzea aurreikusten du. Lizentzia bakoitzak 20 mailegutarako eskubidea ematen du, eta mailegu bakoitzak 21 egun irauten du.

Liburuzainaren zeregina oinarritzkoa da zerbitzu-mota horietan: edukien aukeraketan parte hartzen du, eta hobetzeko proposamenak iradokitzen. Gainera 230 liburutegitako ordezkariak prestakuntza-jardunaldietan parte hartu dute, alderdi teknikoetan eta funtzionamendu-alderdietan sakontzeko. Ekintza-mota horiek egiten jarraitu da 2015. urtean.

Sarbide-moduari dagokionez, eLiburutegian liburu elektroniko bat mailegatzeko, 230 liburutegietako bateko bazkide izan baino ez dago, eta liburutegi horretan alta egin. Une horretan katalogo osoaz gozatu eta sarbidea izango dute, bi modalitatetan: streaming edo deskarga.

Erabiltzaile bakoitzak hiru liburu har ditzake gehienez maileguan aldi berean. Gainera, bi liburu erreserbatu ditzake batera. Mailegatutako lana 21 egunean egongo da esku-

ragarri. Mailegua iraungitzeko bost egun falta direnean, mezu elektronikoa bat jasokodun, oroigarri gisa.

eLiburutegiaren sorketa-prozesuan zehar eredu mistoak hartzeko joera ikusi da. Hogeita bat eguneko maileguaren lizentzia-eredu tradizionalaz gain, lizentzia berritzaileago batzuk aztertu dira beste argitaletxe batzuekin, betirako erosketa edo erabiltzaile-kopuru mugatua, adibidez. Badaude beste aukera batzuk ere, eta aztertu egingo dira, egokiak ote diren zehazteko.

eLiburutegia plataforman, eskuratu diren lizentziak ez dira iraungitzen. Mailegu-kopurua agortzen denean, berritu egiten dira dagokion izenburuaren mailegua berriz egin ahal izateko.

Liburutegietako irakurketa-kluben eskaerak ere jasotzen dira, eta, beharrezkoa izanez gero, izenburu zehatzen lizentzia gehiago eskuratzen dira. Beste aukera bat da Euskadiko ikastetxeetan gomendatzen diren irakurgaietarako lizentziak eskuratzea.

Hona beste alderdi garrantzitsu bat: liburutegietatik legezko deskarga eta irakurketako ohiturak eraginkortasunez sortzen eta finkatzen lagundu daiteke, baimendu gabeko irakurketa eta deskargak alde batera uzteko. Eta merkatua ere dinamizatu daiteke: ar-

gitaletxe batzuk beldur ziren zerbitzu honek partikularrei egindako salmentak zapuztuko ote zituzten, baina nazioarteko ikerketek erakutsi dute liburutegietako irakurleek liburu-dendetan liburuak erosi ohi dituztela.

5. Ondorioak

Ez dago arrakastarako eredu bakarra, egokitasuna zehazteko aztertu behar diren ekimen ugari baizik. Liburutegiak beren eredu propioa zehaztu beharko dute, beste batzuei erabakitzen utzi gabe.

Nazioartean, ordena logikoa da nagusi, eta sortzen den lehenengo galdera plataforma propioa eduki ala ez eduki da, eta, hurrengo, zer eduki eskaintzea. Ildo horretan, liburutegiek zehatz-mehatz aukeratu duten katalogo zabalak liburutegi digitalaren arrakasta eragiten duela dirudi hein handi batean, arrakasta erabiltzaileen eta egiten diren maileguen kopuruak neurtzen baitu.

Eztabaidatu behar den hurrengo gaia liburu elektronikoak babesteko sistemak izatea edo ez izatea da, bai eta edukia eskuratzeko modua ere: gailuan deskargatuta edo streaming bidezko irakurketa. Gai hau ezartzen den lizentzia-motarekin lotu daiteke berehala, lizentzia desberdinak baitaude: egin daitezkeen mailegu-kopuruaren arabekoak, mailegu-egunen arabekoak, erabiltzaileen aldiberekotasuna, irakurritakoagatik ordaintzea... Lizentzia-eredu hedatuagoak ere badauden arren, aldaketak sortzen

dira, komunitate bakoitzeko berezitasun, behar eta eskakizun kulturelek baldintzatuta.

Nolanahi ere, begi bistakoa da liburutegiek izan behar dutela buru, edukien bilaketa eta aukeraketan, erabiltzaileei mota guztietako lanak eskaintzeko, argitaletxeei erosi ohi zaizkienez gain.

Ilido horretatik, liburutegiek honako hauek ere sartu beharko lituzkete beren katalogoetan: idazle independenteek autoeditatutako liburuen aukera zabala audioliburuak, erabiltzaileek sortutako edukiak, egile-eskubiderik gabeko lanak, hainbat hizkuntzetako izenburuak, aplikazio hezigarriak, bideo-jokoak, zinema, musika, etab.

Liburutegiek aurkikuntza-forma berrien aldeko apustua egin behar dute, irakurleen arteko irakurketa-eredua, lerrokada azpimarratuak, benetako irakurketa-denbora, partekatutako laburpenak, gizarte-sareetako elkarrizketak, etab. aztertzeko.

Teknologia propioa edukitzeak eskaini nahi diren zerbitzu eta edukietan autonomia edukitzea esan nahi du. Liburutegi digital autogestionatuaren ereduak erabiltzailearen esperientzia hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du. Artxibo digitaletarako sarbide etengabea bermatzen du, hirugarrenen menpe egon beharrik gabe. Dena den, komenigarria da jakitea plataformen garapena eta mantenuari modu kolektiboan ekin behar litzaiokeela,

beste leku edo herrialde edo gobernuetako liburutegiekin batera. Liburutegiek partners teknologikoak eredu berritzaileekin identifikatu behar dituzte (kode librea, marka zuriko lizentziak, «revenue-share», etab.) plataforma jasagarriak garatzeko.

Liburutegiko espazio fisikoari dagokionez, ikusten da zerbitzuen menua eraldatu dela irakurketa ohituren aldaketarekin batera. Teknologia gero eta indar handiagoa dauka, eta, ukimenezko pantaila nonahikoei esker, errazagoa da edukiak aurkitzea, bilatzea eta eskuratzea. Topaketetarako, ikasteko eta irakurtzeko sortutako tokia aldatzen ari da, abiapuntua ahaztu gabe eta lehen pentsatu gabeko zerbitzuak barneratzen ditu: ekintzailtza, arte-sorkuntza, lanbide-heziketa eta enplegarritasuna. •